

EKONOMIA EREDUA: Kostu egitura

Gure enpresa proiektua aurrera eramateko hainbat kostuei aurre egin beharko diegu, kostu horiek adibidez hauek izango dira: Alde batetik, aliatutako enpresa eta banakakoak eskainiko diguten laguntza eta beste alde batetik, produktua sortzeko erosi beharko ditugun materialak.

Edalontzi "inteligentea" sortzeko beharko dugun materiala kostu handia izango da, gure enpresak ekoizten duen produktua, nahiko produktu konplexua delako, eta horrez gain, merkatuan aurkitzen diren material aproposenak eta kalitate ezinobezkoak erabili nahi ditugulako, bezeroei ahal dugun onena eskaintzeko, eta produktu harrigarri bat aurrera atera ahal izateko. Edalontzi bakoitza erostean kostua 0,20€ izango da, beraz, kostu aldakor unitarioa izango da, izan ere, erosten ditugun edalontzi kantitatearen arabera, kostua aldatu egingo da.

Bestalde, proiektua ondo ateratzeko, kimikari baten laguntza beharko dugu; horregatik *Laboratorio Echevarne* enpresarekin aliatuko gara. Edalontziaren sorkuntza prozesuan lagunduko digu, izan ere, gure produktuak, prozesu zaindu eta zehatz bat jarraitu beharko du dena egoki joateko. Kimikari baten laguntzarekin, kimikoak gure edalontzian txertatuko ditugu, eta kimiko horien kostua, 1€koa izango da unitate bakoitzeko. Edalontziak pertsonalizatuak izango direnez horrek kostu bat gehituko dio edalontzia bakoitzari. 0,05€koa izango da. Horrek esan nahi edalontzi bakoitzaren kostu aldakor unitarioa 1,25€-koa dela

Horrez gain, langile batzuk beharko ditugu, fabrika lagunduko digutenak, hau da, edalontziak pertsonalizatzeko jardueretan lagunduko digutenak, beraz, bai gure aliatu estrategikoa izango den kimikari profesionalari eta fabrika lan egingo duten langile horiei soldata duin bat eman beharko diegu: 13€/h izango da. Kostua aldakorra izango da gure eskakizunen arabera. Garraioa ere beste faktore garrantzitsu bat da. Kostua guztiz aldatuko da eskakizunaren ezaugarrien arabera. Ideia bat egiteko jarriko dugu Euskal Herri mailan kamioiean 100€-ko prezioa izango duela eskakizun bakoitzak

Gure ideia enpresa Euskal Herrian edukitzea denez nabearen alokairuaren kostua 3000€-ko kostu finkoa izango da. Gainera, makinak eta laborategiko tresneria beharko dira edalontziak egiteko eta horrek hasierako kostu handia izango du. Kalkulatuta esan dezakegu 16.000€-koa izango dela. Halaber, argindarra eta bestelako gastuak ere gehitu behar dira, hilabeteen 500€ko gastu finkoa suposatuko dute.

Azkenik, beste gastu txikiagoak ere izango ditugu. gure edalontzia eta enpresa ezagutzera eramateko, marketin lanak egingo ditugu web-orri baten diseinuarekin batera. Web orrian diseinatzeko aukera eman nahi dugunez profesional bat kontratatuko dugu egiteko. Bi gastuak batera 10.000€ izango dira. Hau guztia guretzako garrantzitsua izango da gure enpresa nazionalki ezagutzera emateko.

Laburbilduta, gastu guzti hauekin gure edalontziari 3€ko prezioa jartzea erabaki dugu. Hasiera batean konpetitiboak izan behar dugu produktu berria delako eta badaudelako beste edalontzi arruntak merkatuan. Konturatzen direnean gure edalontziek diferentzia egiten dutela festetan ordun hasiko gara prezioa gutxinaka igotzen eta gure irabaziak handitzen. Etorkizunari begira, gure ideia hasierako inbertsio hori gutxinaka errekuaratzea da. Hasiera batean garrantzia handiagoa emango diogu gure produktua zabaltzeari.

KOSTUEN TAULA		
Kostu mota	Kostua	Guztira
Kostu finkoak	Alokairua: 3000€/hilabete	3500€/hilabete
	Argindarra eta bestelakoak: 500€/hilabete	
Hasierako gastuak	Tresnak erosotea: 16.000€	26.000€
	Marketing-a eta Web orria: 10.000€	
Kostu aldakorak	Langileen soldata: 13€/h	Orduen eta langileen arabera
	Garraioa: 100€/eskakizuna	
Kostu aldakor unitarioa (KAU)	Edalontzia erostea: 1€/unit.	1,25€/unit.
	Kimikoak ezartzea: 0,20€/unit.	
	Pertsonalizazioa: 0,05€/unit.	

+ Prestamoa jarri